

Material piroteknikoa erabiltzea

Profesionalek bakarrik erabili behar dituzte produktu piroteknikoak, baina batzuetan helduek eta hurrek ere erabiltzen dituzte, eta hori oso arriskugarria da, litekeena delako bolbora nola erabili behar den ez jakitea.

Egungo araudian jasota daude produktu piroteknikoak erabili eta saltzeko mugak. Saltzeko eta erabiltzeko arau horiek nahitaez bete behar dira, horrek bermatuko digulako produktuak kontsumitzailearentzat egokiak direla.

Araudi aplikagarria

HERRITARREN ELKARBIZITZARI BURUZKO ORDENANTZA, HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA (GAO, 2007-08-20koa).

- 4.2. h) artikulua. Herri altzariak eta espazio publikoak babestea
 - h) Debekatuta dago sua eta ekintza piroteknikoak egitea udalaren eta alor horretan eskumena duten administrazioen derrigorrezko baimenik gabe .
- 5.1. artikulua. Berariazko debekuak
 - 1. Debekatuta dago bide publikoan petardoak edo bengalak erabiltzea.
- 33. artikulua. Arau hauste motak
 - 4.2 h) eta 5.1. artikuluen arau-haustek arintzat joko dira, eta 60 euroko eta 100 euroko isuna ezarriko zaie.

563/2010 ERREGE DEKRETUA, MAIATZAREN 7KOA, GAI PIROTEKNIKOEI ETA KARTUTXOEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA.

- 8. artikulua. Kategorizazioa.
- a. Piroteknia-artifizioak:
 - i. 1. kategoria: oso arrisku- eta zarata-maila txikia duten piroteknika-artifizioak, eremu jakin batzuetan erabiltzekoak, bizitegitarako eraikinetan erabiltzekoak direnak barne. (< 12 urtekoentzat debekatuta)
 - ii. 2. kategoria: arrisku- eta zarata-maila txikia duten piroteknia-artifizioak, aire zabaleko eremu jakin batzuetan erabiltzekoak. (< 16 urtekoentzat debekatuta)
 - iii. 3. kategoria: arrisku-maila ertaineko piroteknia-artifizioak, aire zabaleko eremu handietan erabiltzekoak, eta giza osasunari kalterik ez eragiteko moduko zarata-maila dutenak. (< 18 urtekoentzat debekatuta)
 - iv. 4. kategoria: arrisku-maila handiko piroteknia-artifizioak, adituek soilik erabili beharrekoak, erabilera profesionaleko piroteknia artifizioak ere esaten zaienak eta giza osasunari kalterik ez eragiteko moduko zarata-maila dutenak. Kategoria horren barnean hartzen dira piroteknia-artifizioak fabrikatzeko soilik diren objektuak. (aditu-ziurtagiria)

Erabiltzeko aholkuak

- Ez gorde horrelako gairik sakeletan.
- Ez manipulatu osagaiak, eta ez atera edukia.
- Ez jaurti petardorik pertsona edo animalien kontra.
- Ez jaurti ezer eskuekin. Utzi beti gai piroteknikoa lurrean, eta piztu metxa muturretik. Horrela urruntzeko denbora izango duzu.
- Ziurtatu beti inguruan lehergailu edo likido sukoirik ez dagoela.
- Ez jarri inoiz petardorik adreiluen, botilen eta abarren barruan. Eztanda egitean metraila sorraraziko lukete.
- Erosi piroteknia-gaiak horretarako baimena duten dendari eta profesionali soilik. (Hernanin ez dago material piroteknikoa saltzeko baimena duen dendarik)
- Petardo bat ondo pizten ez bada, ez ukitu ordu erdia igaro arte.

Kategori bakoitzean sartzen diren produktuen adibideak

I Katgoria



II categoria



III categoria



[TRUENO EXTRA N.º 10 \(5 u.\)](#)



[3 TRACA CHINOS \(3 u.\)](#)



[TRACA GLORIAS \(1 u.\)](#)



[Borracho n.º 4 Silbadora Trueno \(12 u.\)](#)



[Trueno Baby \(100 u.\)](#)



[Borracho n.º 12 Fuego Seguido Trueno \(6 u.\)](#)

